



Antzuola



ANTZUOLAKO
UDALA



aztiker
Soziologia ikergunea

PLAN ESTRATEGIKOA 2018/2030

AURKIBIDEA

0. SARRERA	3
1. ANTZUOLA	4
2. MARKO TEORIKOA	9
3. FASEAK ETA ANTOLAKETA	12
3.1 PROZESUAREN FASEAK	12
3.2 PROZESUAREN ANTOLAKETA	13
4. PARTE HARTZEA	15
5. ILDO ESTRATEGIKOAK	17
5.1. EKONOMIA ETA INGURUMENAREN JASANGARRITASUNA	18
5.2. PERTSONAREN GARAPENA	19
5.3. BIZIKIDETZA	20
5.4. ZERBITZU SOZIALAK	20
5.5. HERRI KUDEAKETA	22
6. EKINTZA PLANA	23
6.1. EKONOMIA ETA INGURUMENAREN JASANGARRITASUNA	24
6.2. PERTSONAREN GARAPENA	24
6.3. BIZIKIDETZA	26
6.4. ZERBITZU SOZIALAK	27
6.5. HERRI KUDEAKETA	28
7. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	29
7.1. EBALUAZIO JARRAITUA	29
7.2. ZIKLO BUKAERAKO EBALUAZIOA	30

0. SARRERA

Aztiker Soziologia Ikerguneak diseinatu eta dinamizatu duen partaidetza prozesu honek Antzuolako herritarren partaidetzarekin 2030era begirako Plan Estrategikoa osatzea izan du helburu.

2017ko abendua eta 2018ko urria bitartean hainbat fasetan garatu da prozesua eta IEP (Ikerketa Ekintza Partehartzailea) teoriatik elikatutako metodologian oinarritu da. Izan duen bereizgarri eta balio garrantzitsu bat abiapuntutik lortutako akordio politikoa izan da, Antzuolako Udaletxean ordezkariak duten alderdiek prozesua babesteko eta emaitza aintzat hartzeko konpromisoa hartu baitute.

Dokumentu honen lehenengo atalean partaidetza prozesua laburbiltzen da prozesuaren faseak eta antolaketa zein izan den azalduz, halaber, herritarren partaidetzari buruzko datuak ematen dira. Bigarren atalean, sortutako edukiari heltzen zaio. Lehenik, lortutako diagnostikotik abiatuta definitutako bost ildo estrategikoetan sakontzen da eta bakoitzari ezarritako helburuak azaltzen dira. Bigarrenik, helburuak lortzeko definitutako ekintza plana zehazten da. Eta, bukatzeko, plana denbora lerroan kokatzen duen kronograma eta exekuzioaren jarraipena nola egingo den azaltzen da.

Txostenaren eranskin gisa bigarren mailako datuen ustiaketan oinarritutako azterketa kuantitatiboa gehitu da.




1. ANTZUOLA

Antzuolako errealitatea ezagutzeko osatutako diagnostiko kuantitatiboaren datu esanguratsuenak laburbiltzen dira jarraian. Datu horiek aintzat hartuta abiatu da herritarren arteko hausnarketa, zeinaren emaitza gisa Plan hau osatu den.

BIZTANLERIA

80. hamarkadatik 2001era etengabe biztanleria gutxituz joan da Antzuolan, baina XXI.mendearen lehen hamarkadan biztanleria hazkunde nabarmena bizi izan du herriak, eta 80ko kopuruetara hurbildu da, maximoa 2016an izanik (2.196 bizt.).

2017.urtean Antzuolak 2.145 biztanle izan ditu. Datu horrek joera aldaketa bat adierazten du, azken urteetako hazkundera (2001-2016) eten eta azken urtebetean 51 herritar gutxiago daude herrian. Esan daiteke 2001 arteko joera negatiboaren aldakuntzaren arrazoiak, berezko hazkundera eta herriak jasotako biztanle berriak direla. Biak bilakaera positiboa ahalbidetu dutelako. Hala ere, nabaria da azken urteetan egondako emigrazio handiak eta 2016an hazkunde begetatiboa negatiboa izateak biztanleria totalaren jaitsiera eragin duela, badirudi beste inflexio puntu batean (joera aldaketa) aurkitzen dela Antzuolako biztanleria eta orain arteko hazkundearen dinamikan negatiboki eragin dezakeela.




Iturria: Eustat.

ETXEBIZITZA

Antzuolan 880 etxebizitza inguru daude, hau da, 2,43 herritar daude etxebizitzako. Aipatzekoa da, Antzuolan zegoen etxe-huts kopurua %17,3koa zela 2011. urtean, eskualdeko batezbestekoa baino handiagoa, eta Gipuzkoako zein EAEko indizea baino nabarmen handiagoa.

Taulak erakusten duen moduan, 55 urtera arte, gizonezkoak dira bakarrik bizi direnen gehiengoa. Adin horretatik aurrera baina, emakumezkoak gehiago dira. 65 urtetik gorakoan artean 107 herritar bizi dira bakarrik, eta horietatik ia bi heren (% 64) emakumezkoak dira.




Iturria: Antzuolako errolda, 2018.

LAN MERKATUA

Langabeziaren bilakaerak gizon eta emakumeen artean joera berdintsua izan badu ere, ikusi daiteke nola emakumezkoen kasuan sei urte lehenago iristen den aldaketa. Badirudi krisia emakumezkoentzat 2009an hasi zela Antzuolan, eta gizonezkoen kasuan ez da iritsiko 2015. urte arte. Gainera, bi kasuetan eman den garapenak aurkako zikloak izan dituela esan daiteke; emakumezkoenean, hiru urtetako hazkunde azkar batetik bederatzi urtetako txikitze "geldo" batera pasa da; eta gizonezkoena, berriz, 2006-2015 arteko hazkunde "geldotik", hiru urteko txikitze bizkor batera.


Ondorioz, ikusten da krisiak 2009tik aurrera guztiei eragin bazienez ere, emakumezkoengan eragin azkarragoa eta handiagoa izan zuela; eta susperraldiak aldiz, alderantziz, gizonezkoak izan dira enplegu bat azkarrago lortu dutenak

Langabezia sexuaren arabera (%) 2018



Iturria: INE

Langabeziaren bilakaera sexuaren arabera




ENPRESA EGITURAKETA

Antzuolako enpresa egituraketa eskualdekoarekin, Gipuzkoakoarekin edo EAEkoarekin alderatuz gero, dauzkan ezaugarri nabarmenenak dira sektore industrialak duen pisu handia; eta, aldi berean, sektore horretako establezimenduen tamaina handia dela.

Zerbitzu sektoreko establezimenduak guztiekiko %65,32 dira, gainontzeko hiru eremuetan baino puntu batzuk txikiagoa, hala ere, herri txikien ezaugarrietako bat izan ohi da.

Hala ere, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, landunen gehiengoa sektore industrialean aritzetik, gaur egun zerbitzuen sektorean aritzera pasa da azken hamarkadan.

16 urtetik gorako biztanleriaren okupazioa industria eta zerbitzu sektoreetan




Iturria: Eustat

SEXUEN ARTEKO DESOREKA

Gizon eta emakumeek jasotzen duten batezbesteko errentan ere aldea handia da, Antzuolan urtean gizonek emakumeek baino 13.869€ gehiago jasotzen dituzte. Are gehiago, 2001etik 2015era errentak izandako bilakaerari erreparatuz gero, ikusi daiteke gizon zein emakumezkoen errentak gora egin duen arren, ez duela maila berdinean gora egin. 2001etik 2015era gizonezkoen errentak 11.020€tan handitu den bitartean, emakumeenak, epe berdinean, 9.209€ egin du gora.

Ondorioz baieztatu daiteke gizon eta emakueen artean dagoen errenta ezbedintasuna urtetik urtera gero eta handiagoa dela.



Iturria: Eustat

EUSKARA

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, Antzuolan 2011.urtean herritarren ia 3/4ak euskaraz aritzeko gaitasuna duela erakusten dute datuek, eskualdeko batezbestekoak baino handiagoa da datu hau; eta, Gipuzkoa zein EAEko batezbestekotik nabarmen gora dago.

Bilakaerari dagokionez, urteetako etengabeko hazkundearen ondotik, 2001etik aurrera euskaldunen portzentajea jaitsiz doa, ia euskaldunena igotzen den bitartean

LURRAREN ERABILERA

Antzuolako udalerriko azalera 2790 Ha-koa da, eta 2014ko datuei so, horietatik %98,06a ez da urbanizagarria; %0,69a egoitzarako lurzorua da; jarduera ekonomikoetarako lurzorua %0,49koa da; eta, sistema orokorrekin okupatutako lurzorua %0,76koa da.


ERABILPEN OROKORREKO EKIPAMENDUAK

Orokorrean Antzuolako datuak batezbestekotik gora aurkitzen dira. Esaterako, 0-2 urte arteko haur-hezkuntzako 5,12 unitate daude 100 biztanleko Antzuolan; eskualdeko batezbestekoaren datu bera da, eta Gipuzkoako eta EAEko datuen gainetik aurkitzen da, 4,72 eta 4,28, hurrenez hurren.

Aldiz, Antzuolan 3. adinekoentzako egoitza-zentroetako plaza kopurua 1000 biztanleko 20,15 pertsonakoa da; eskualdeko batezbestekoa 42,80koa da, Gipuzkoa eta EAEkoaren antzekoa; beraz, Antzuolan 65 urteko eta gehiagoko biztanleentzako egoitza zentroetako plaza kopurua txikia dela esan daiteke.

ZAINZA LANAK

Zaintza lanak eta horiek nork egiten dituen alderatuz gero, bereziki nabarmena da haur eta adin txikikoen zaintzari emakumezkoak gizonetzkoekin konparaturik eskaintzen dizkioten ordu kopurua, 4,7 ordu egunean eta 3,3 hurrenez hurren. Laguntza behar duten pertsonak zaintzen ere dagoen aldea handia da, emakumeek 2,7 ordu eskaintzen diote batezbesteko, gizonek 1,1 eskaintzen dioten bitartean. Eta, etxeko lanetan aurkitu daiteke ezberdintasunik txikiena, emakumeek 2 ordu ematen dute lan horretan eta gizonek 1,2 ordu egunean.



Iturria: Eustat.

2. MARKO TEORIKOA

"Hirien planifikazio estrategikoa epe luzeko ekintzan oinarritutako prozesu sortzaile, parte hartzaile eta sistemikoa da. Etorkizuneko garapenerako helburuak finkatu eta lortzeko estrategia eta ekintza plana definitzen du, eta tokiko agenteak prozesuan barne hartzen ditu."

J.M Fernández Güell.

PLAN ESTRATEGIKOAREN BEHARRIZANAZ

Planifikatzea etorkizuna irudikatu eta horrela gertatzeko neurriak hartzea da. Hala ere, soiltasunetik harago, abiapuntuan aintzat hartu beharreko faktoreen konplexutasunak planaren diseinu eta emaitzan erabateko eragina dute.

XXI.mendeko hirietan (herrietan eskala txikiagoan) ematen diren prozesuen ezaugarri nagusietako bat da konplexutasuna, esan daiteke hirien berezko ezaugarria dela. Esaterako, gaur egun, garraio arazo baten aurrean ez da nahikoa azpiegitura berriak eraikitzea; hau zuzenean harremanetan dago ingurumenarekin, bizitzeko moduarekin, mugikortasunarekin edo segurtasunarekin. Gainera, teknologian ematen diren berrikuntzak edota globalizazio prozesuaren garapenak, are eta konplexuagoak bihurtzen ditu sistemak.

Kontuan izan beharreko bigarren ezaugarria aniztasuna da. Kokapen geografikotik hasita edo egitura sozioekonomiko jakin batetik abiatuta, hiriak dituen funtzio ezberdinetaraino (aisialdia, lana, etxebizitza, harremanak...), askotarikoak dira hirien nolakotasun eta bertan parte hartzen duten agenteen ezaugarriak. Horrek baliagarria izango den hiri-eredu unibertsala sortzeko aukerak erabat murrizteaz gain, aniztasun hori kudeatzeko beharra azaleratzen du. Eta, esan daiteke, erronka handia bihurtu dela agente ezberdin horien arteko adostasunean oinarrituko den planifikazio demokratikoa lortzea.

Konplexutasun handiko erabakiak hartzeko prozesuetan herritarrak txertatzeko pausuak ematen ari den arren, oraindik lan hau hobetzeko dagoela agerikoa da. Hortaz, hirien planifikazio estrategikoa herritarren bizi-kalitatea hobetzeko tresna frogatua dela ukaezina bada ere, gaur egun garapen eta experimentazio gehiago behar duten hutsuneak existitzen dira; hala nola, konplexutasunaren azterketa, aniztasunaren kudeaketa, herritarren partaidetza iraunkorra, gobernantza eredu...

PLANIFIKAZIO ESTRATEGIKOAREN EZAUGARRIAK

Hirien planifikazio estrategikoak honako ezaugarri hauek ditu¹:

- *Sektore eta diziplina anitzekoa*: Komunitatearen dimentsio fisikoa kontuan hartzeaz gain, bere errealitate sozioekonomiko eta politikoa ere aztertzen ditu. Horrek, errealitate ezberdinen integrazioa proiektu bakarrean txertatzea ahalbidetzen du.
- *Epe luzekoa eta elkarbanatua*: Plan estrategikoa prozesu demokratiko gisa ez da momentu jakin bateko ordezkari politikoen emaitza; epe luzean komunitate osoak bere egingo duen proiektua baizik.
- *Inguruan txertatua*: komunitate oro bere inguruan (natural, sozial, ekonomiko...) ematen diren aldaketen eraginpean dagoen heinean, planifikazio estrategikoak indar berezia egingo du inguru horren ezagutza eta azterketan.
- *Ekintzara bideratua*: Asmo edo helburuetatik harago, ekintza egingarriak zehaztea lortu nahi da, proposamenen bideragarritasuna, finantzazioa eta arduradunak ere identifikatuz.
- *Prozesu dinamiko eta malgua*: Ezarritako helburu eta ekintzak errespetatuz, eman daitezkeen aldaketara malgutasunez egokitzeko aukera ematen du, beti ere zentzu pragmatikoenean.
- *Parte hartzea oinarrian*: komunitatearen parte diren herritar zein agenteen (ekonomiko, sozial, administrazio...) parte hartze koordinatua ematen da. Halaber, beharrezkoa den informazio transmisioa egin eta gardentasun neurriak hartzen dira.

Bukatzeko, azpimarratu behar da erabilgarri den tresna gisa planifikazio estrategikoak abantaila eta desabantaila esanguratsuak dituela. Emaitzei dagokionez, betiere, epe luzera begira jarri beharra dago aldaketa esanguratsuak ikusten hasteko; nahiz eta herritarren aldetik jasotako atxikimendua hasierako uneetan ere neurgailu ona izan.

Hori horrela, planifikazio estrategikoak eskaintzen dituen aukera eta arrisku nabarmenen sinetsi bat egin daiteke:

AUKERAK

- Hainbat ikuspuntutatik elikatutako errealitatearen bisio osatua ematen du.
- Erronkak identifikatu eta aukera berriak azaleratzen ditu.
- Helburu nagusiak definitzen ditu
- Elkarrizketa eta eztabaida sustatzen ditu.
- Ekintzarako komunitatearen konpromezua lortzen du.
- Gizarte sareak indartzen ditu.
- Instituzio publiko, pribatu eta herritarren arteko koordinazioa sustatzen du.
- Ikusgarritasun politiko eta soziala ahalbidetzen du.

ARRISKUAK

- Plana bultzatu duen erakundeak ekintzak aurrera eramateko gaitasun falta izan ditzake.
- Arlo ekonomikoaren gehiegizko protagonismoa, ingurumen edo gizarte arloen kalterako.
- Analisi teknikoa orokorregiek errealitatea ulertzeko zailtasunak ekartzen dituzte.
- Ekintzen ikuspegi apala: negoziazio, pizgarri, sentsibilizazio etab. bezalako ekintzek gatazka haandia edo pisu handikoak agendatik kanpo uzteak ekarri dezake.
- Plan Estrategikoarekiko enpresa planen konexio falta eman daiteke lehenengoaren eraginkortasuna jaitsiz.
- Politikarien interes falta: plana osatzean zein bere ezarpenean ere administrazioaren lidergoak jarraitu behar du, eta aintzat hartu behar da hauteskunde garaiek izan ditzaketan arriskuak.

¹ Fernández Güell, J.M. *Planificación Estratégica de ciudades. Nuevos instrumentos y procesos*, 2006.

PROZESUAREN GARRANTZIA PLANIFIKAZIOAREN ERAGINKORTASUNEAN: I.E.P

Ikerketa (edota hausnarketa), Ekintza, Parte hartzeak ibilbide luzea egin du hamarkada hauetan eta bere potentzialtasunak eskaini ditu talde nahiz komunitateen auto-eraketan. Metodologia hau ondo egokitzen da behetik gora doan norabidean eraikitzen diren hausnarketa kolektibo nahiz antolaketa prozesuetan. Hain zuzen ere, han eta hemen eman diren garapen komunitarioko dinamika esanguratsuetan aipatu metodologiak esku-hartze funtsezkoa izan du.

IEP metodologiaren ezaugarri batzuk:

a) Metodologiaren izenean agertzen den "Ikerketa"ren haria hartuz, errealitate baten hausnarketa eta diagnostikoa burutzen da, ezagutza kolektiboaren oinarrian. Ikuspegi kritikoaren (autokritikoa barne) garapena landu eta oinarri du aztergaiaren diagnostikoan. Honek lotura estua du prozesu hauek duten izaera hezitzailearekin.

b) Prozesuaren izaera hezitzailea aipatu dugu. Heziketa izaera honen bitartez auto-kontzientzia aurrera egitea bilatzen da, kontzientziaren mobilizazioan urratsak emateko, segidan. Ekintzarako hausnarketa denez eskuartean dugun proiektua, prozesu horretatik ondorioztatuko diren zereginak bereak egingo dituen subjektu kolektiboren erakuntza funtsezkoa da. Bestela esanda, subjektibitateen eraldaketa eta subjektu kolektiboen eraketa aintzat hartzen ditu I.E.P.ak, hausnarketaren emaitzekiko konpromisoa sustatuz.


c) Eta ezinbestez parte-hartzailea da, pertsona guztien parte-hartzera irekia baitago. Parte-hartzailea izateko premia bi arrazoi ezberdinen bitartez azal daiteke, besteak beste. Lehenengo arrazoa, informazioa eta hausnarketa ariketaren bitartez eraikiko diren ondorio praktikoak finagoak, osatuagoak eta borobilagoak izango dira inoren ezagutza eta esperientzia ez bada kanporatzen. Bigarren arrazoa, prozesuaren dimentsio hezitzailearen bitartez sustatu nahi den subjektu kolektiboan pertsona bakoitza parte delako, eta ez dagoelako inor soberan. Ondorioz, prozesu integratzailea izango da.



3. FASEAK ETA ANTOLAKETA

3.1 PROZESUAREN FASEAK

Antzuola eitten prozesua bost fase ezberdinetan garatu da eta bakoitzak hainbat helburu eta ezaugarri bereizgarri izan ditu. Jarraian fase bakoitzaren xedea eta egindako lana aurkezten da.



3.2 PROZESUAREN ANTOLAKETA

Diseinatutako prozesua aurrera eramateko beharrezkoa izan da funtzio ezberdinak bete dituzten hiru marko sortzea: lehena talde eragilea, prozesuaren gainbegiraketa, sustapena eta egokitzapena ahalbidetzeko sortu dena. Bigarrena, jarraipen batzordea, prozesuaren balorazioa eta jarraipena egiteko, eta hirugarrena partaidetza irekia, herritarren arteko hausnarketa, eztabaida eta erabakiak hartzeko egindako bilerek osatzen dutena.

Jarraian zehaztasun handiagoz bakoitzaren funtzioak azaltzen dira.

❖ TALDE ERAGILEA

Ordezkeri politikoen hautatutako 17 herritarrez osatutako taldea da. Perfil eta iritzi aniztasuna bermatuz hautatu dira eta era bolondresean parte hartu dute guztiek.


Hauetakoak dira bere funtzio garrantzitsuenak

- ✓ Prozesuaren gidaritzaren ardura du, gune erreferentea da: prozesua gertutik jarraitu, norabidea adostu, etab.
- ✓ Prozesuaren metodologia adosteko erabaki gune garrantzitsua da.
- ✓ Aliatuak bilatu eta saretu ditu: laguntzaile, interesatu edota partaide izan diren eragileak identifikatuz, harremanak sortuz eta prozesuan integratuz.
- ✓ Prozesuaren lan fase ezberdinen jarraipena eta egituratzea:
 - Egitasmoa gainbegiratu, eta beharrezko moldaketak egin ditu: proposatu den egitasmoa baloratu eta herriko errealitate eta ezaugarrietara gehien egokitze beharrezko aldatuak egin ditu.
 - Prozesuan zehar zailtasunak eta oztopoak identifikatu, aurreikusi eta alternatiba zein aukera posibleak proposatu.
 - Etengabeko jarraipena eta balorazioa.
 - Komunikazio plangintza eta euskarrien balorazio eta gainbegiratzea.

❖ JARRAIPEN BATZORDEA

Udaleko ordezkeri politikoen osatutako taldea da. Hasieran lortutako konpromiso politikoan oinarrituta, jarraipen batzordeak bere egiten du prozesuaren gainbegiraketa funtzioa.

Plan Estrategikoa osatzeko, Antzuola eitten prozesua amaitzean jarraipen batzordeak ekintza planaren garapenaren jarraipena egingo du, eta taldea bera herritarrei irekia egongo da.



4. PARTE HARTZEA

Prozesuak izan duen parte hartzea zein izan den azaltzeko hainbat datu jaso dira. Hasteko, egindako bilera guztietara zenbat herritar gerturatu diren kontatu da eta sexu banaketa zein izan den ere aintzat hartu da. Halaber, partaideen datuak jaso dira, komunikazio lanerako lagungarria izan bada ere, zenbat pertsona ezberdinek parte hartu duten jakitea ahalbidetu du.

Parte hartze presentzialaz harago, prozesuak online izan duen jarraipena egiteko webgunearen erabilera datuak ere jaso dira.

ANTOLAKETA BATZORDEAK

17

TALDE
ERAGILEKO
PARTAIDEAK

11

JARRAIPEN
BATZORDEKO
PARTADIEAK

BILERETAKO PARTE HARTZEA

26

EGINDAKO BILERAK
Talde Eragilea: 6
Jarraipen Batzordea: 3
Herritarrekin bilerak: 15
Aurkezpenak: 2

2.FASEA

- 5 BILERA
- 118 PERTSONA
- EMAKUMEAK %47, GIZONEZKOAK %53

3.FASEA

- 10 BILERA
- 108 PERTSONA
- EMAKUMEAK %36, GIZONEZKOAK %64

4.FASEA

- 161 PERTSONAK PARTE HARTU DUTE

GUZTIRA

- 517 PERTSONAK PARTE HARTU DUTE (KONTUAN HARTU BEHAR DA, BATZUK BEHIN BAINO GEHIAGOTAN ETORRI DIRELA BILERETARA)

147

PROZESUAN PARTE
HARTU DUTEN
PERTSONA
EZBERDINAK
(4.FASEA AINTZAT
HARTU GABE)

%41

BILERETAN
EMAKUMEEN
PARTAIDETZA.
GIZONEZKOAK %59
IZAN DIRA.

%7

BILERETAN PARTE
HARTU DUEN
ANTZUOLAKO
BIZTANLERIAREN
EHUNEKOA

%8,65

BILERETAKO PARTE
HARTZEA 15 ETA 85
URTE ARTEKO
BIZTANLERIA
AINTZAT HARTUTA

WEBGUNEAREN ERABILERA

471

WEBGUNEAK IZAN DITUEN
ERABILTZAILEAK
(PERTSONA EZBERDINAK)

890

WEBGUNEAN
HASITAKO SAIO
KOPURUA

1,89

PERTSONA
BAKOITZAK
HASITAKO
SAIOAK
BATAZBESTE


3153

ORRIETARA
SARRERA
KOPURURA



5. ILDO ESTRATEGIKOAK

Antzuolaren garapen sozial, ekonomiko eta fisikoa lortzeko Plan Estrategikoaren bizkarrezurra izango diren bost ildo zehaztu dira. Antzuolako egungo egoeraren analisisan eta etorkizuneko ikuspegian oinarrituta finkatu dira ildoak eta bakoitzak hainbat arlo barnebiltzen ditu.



5.1. EKONOMIA ETA INGURUMENAREN JASANGARRITASUNA

Inguruko herriekin alderaturik Antzuolak langabezia tasarik baxuenak ditu, 20-64 urte arteko biztanleria guztia (ez da biztanleria aktiboa) aintzat hartuta 2018an %4koa da tasa hau; eta, 2015etik 2,8 puntu jaitsi da. Batezbesteko errenta maila handia bada ere (23.880€ bizt/urte) gizon eta emakumeek jasotzen duten errenten artean alde handia dago. Hala ere, eros ahalmena altua da.

Antzuolak eguneroko kontsumorako aukerak eskaintzen ditu, baina; batetik, kontsumo joera berriak (Internet, merkataritza-guneak edota herri handiagoak), eta bestetik, "bertakoa" balioan jartzeko sentsibilizazio falta nabaria da.

Orokorrean ez dira herriak dituen baliabide naturalak behar adina esplotatzen, bereziki, energia berriztagarria sortzeko baliagarriak direnak (ura, egurra, eguzkia...) Lehen sektorearekin lotutako azpiegituren (baserrien) produkzioa txikia da, nahiz eta azken urteetan jarduera osagarriak sortu diren eta gazte ekoizle berriak sektorerara gehitu diren. Sektorearen garapenerako aukerak dauden arren, politika zehatzak falta dira norabide horretan.

Industriari dagokionez, enpresa gutxitan biltzen den puntako industria dauka Antzuolak, herritar ugarik bertan egiten dute lan eta eskulana kualifikatua da. Gainera, entitate batzuen izaera kooperatiboak herri mailako proiektu berriak sortzeko eta elkarlanerako aukerak handitzen ditu. Hala ere, industria gunerik ez izateak eta ehun industrialak enpresa gutxitan bilduta egoteak, "menpekotasun" sentsazioa eta deslokalizazio arriskuaren kezka egotea ekartzen du.

Inguru naturalak berak eta herrigunetik gertu egoteak zein aukera aniztasunak (paseorako, erreka, basoak), balioa ematen diote herriari. Nahiz eta, azpiegitura handiek kalteak sortu dituzten, eta ingurumen (hondakinetatik harago) politika eta baso zein baserri inguruen kudeaketa gehiago garatzeko beharra dagoen.

❖ HELBURUAK

Antzuolak bertako ekonomiaren alde lanpostuak eta lan baldintzak mantentzeko lan egingo du; halaber, ingurumenari garrantzi berezia eman eta jasangarritasunean oinarritutako jarduerak garatzeko apustua egingo du hainbat arlotan, hala nola, elikaduran, kontsumoan, energian...

ARLOA	HELBURUAK
1.1 Lana	Lan tasa eta lan baldintzen handitzea edota mantenua. Lan banaketaren filosofia txertatzea. Emakumeen eta lan prekarioaren aitortza eta baldintza ekonomikoak Eredu ekonomikoari dagokionez, kooperatibismoa eta Ekonomia Sozial Eraldatzailea bultzatzea
1.2 Natur baliabideak	Energia berriztagarri zein bertako baliabide naturalen ustiaketa eta kudeaketa jasangarria lortu
1.3 Lehen sektorea/ kontsumoa	Lehen sektorearen garapen eta egonkortzea, horretarako produkzio, merkaturatze zein kontsumo moduak edo aukerak sortuz. Gazteen inkorporazioa, Jarduera osagarriak (turismoa) edo Produkzio ekologikoa. Bertako/gertuko merkaturatze eta kontsumorako aukera berrien sorrera. Plan orokor bat nekazal baliabideei (lurrak, baserriak...) errendimendu handiagoa ateratzeko.
1.4 Industria	Industriaren mantenua eta herritarren ongizatea, beharren elkar-asetzerako aukerak bilatuz, sortuz, ustiatuz.
1.5 Ingurumena	Hondakinak murriztea Herriak bere gain hartzea hondakinen kudeaketa (ahal duen neurrian) Hondakinen kudeaketan birziklapen tasa handitzea.

5.2. PERTSONAREN GARAPENA

Antzuolan lehen hezkuntza arteko ikasketak egiteko aukera dago eta herri eskolaren eredia oso ondo baloratzen da; hala ere, epe ertainera arriskuan egon daitekeela nabari da, bereziki, irakasleen ezegonkortasuna dela-eta. Halaber, nerabe eta gazteentzat aisialdirako aukera orokorrean urria da, eta lokalen erabilerak edo erregulazio faltak kezka sortzen du.

Kirola egiteko azpiegiturak eta inguru egokia dagoen arren, espazioak erabilera ezberdinetara egokitzeko aukerak nabari dira, horrela disziplina ezberdinei tokia egin eta eskaintza anitzagoa lortzeko. Gainera, inguruko herriekin batera komunitate ikuspegia garatzeko beharra ikusten da, azpiegituren erabilera elkarbanatzeko.

Elkartegintza sare zabala eta anitza dauka Antzuolak, hala ere, muga edo oztopo ezberdinak identifikatzen dira: errelebo falta, ardurak hartzeko zailtasunak, komunikazioa, koordinazio falta, kolektibo zehatzen parte hartzea (gazteak, generazio ezberdinak...)

Euskarari dagokionez, Antzuolan 2011.urtean herritarren ia 3/4ak euskaraz aritzeko gaitasuna zuela erakusten dute datuek, gainera azken urteetan udal mailan eta baita herriko enpresa nagusienetan ere euskararen normalizaziorako lan handia egin da. Hala ere, 2016.urtean egindako kale neurketek erakusten dute haur eta gazteen artean bereziki euskararen erabilerak behera egin duela.

❖ HELBURUAK

Antzuolak herritarren bizi kalitatea hobetzen lagunduko duen ingurunea sortu nahi du, maila ezberdinetan herritarren premiak asetuko dituen garapen pertsonala ahalbidetuz.

ARLOA	HELBURUAK
2.1 Euskara	Euskararen erabileran ematen ari den joera beherakorra gelditu eta berriz erabiltzaile gehiago izatea Gurasoak lan-eremu bezala jorratzea Euskaldun eleanitzak sortzea (gaztelaniarekiko menpekotasuna gainditzeko) Erdaldunak euskarara erakartzea
2.2 Hezkuntza	Herri eskolaren eredia mantendu eta hobetzea Herritarren inplikazioa lortu 14 urte arteko eskaintza aztertzea Natura hezkuntzan txertatu
2.3 Kirola	Kirol, aisialdi edo kulturarako azpiegitura hobetzea (fisikoa, naturala...) Azpiegitura naturalean zentratu Kirol eskaintza dibertsifikatzea eta egokitzea.
2.4 Elkarateak	Elkarteen arteko elkarlana lortu eta belaunaldi arteko ekintzak antolatu.
2.5 Kultura	Eskaintza kulturala hobetzea Sorkuntza kultura bultzatu Kulturaren dinamizazioa (koordinazioa, elkarlana...) eta ikuspegi bateratua lortu.

5.3. BIZIKIDETZA

Antzuolako biztanleriaren gutxiengoa (%14) kanpotik herrira etorritakoek osatzen dute. Aniztasuna lantzeko bereziki eskolak egiten duen lana nabarmentzen da; eta eskola bakarra izateak ere laguntzen du. Herritarrek martxan jarritako "Auzoko" bezalako inizatibak ere egin dira.

Ezberdintasun sozialei so eginez, gizon eta emakumeek jasotzen duten batezbesteko errentan dagoen aldea handia da. Antzuolan, urtean gizonek emakumeek baino 13.869€ gehiago jasotzen dituzte. Are gehiago, 2001etik 2015era errentak izandako bilakaerari erreparatuz gero, ikusi daiteke gizon zein emakumezkoen errentak gora egin duen arren, ez duela maila berdinean gora egin. 2001etik 2015era gizonzkoen errenta 11.020€tan handitu den bitartean, emakumeenak, epe berdinean, 9.209€ egin du gora. Ondorioz baieztatu daiteke gizon eta emakumeen errenten arteko arrakala urtetik urtera gero eta handiagoa dela.

Ildo horretatik, eguneroko harremanetan ematen diren genero-rolak, eta lanaren sexu banaketa ikusten dira gainditu beharreko puntu ahulenak bezala.

❖ HELBURUAK

Antzuolak, bizikidetzaren alde, kolektibo baztertuek gainontzeko herritarren aukera berdinak izan ditzaten egingo du lan; bereziki, jatorri aniztasunean, ezberdintasun sozialean eta emakumeen eta gizonen arteko bestelakotasunean fokua jarritz.

ARLOA	HELBURUAK
3.1 Aniztasuna	Aniztasunaren onarpena, "Antzuola denon herria" norabidean hainbat gai landuz (hizkuntza, identitatea, kultura...) aurrera pausoak ematea.
3.2 Ezberdintasun soziala	Ezberdintasun sozialei aurre egiteko elkarlanean aritzea: Udaletik (zerbitzu sozialak), herrigintzatik (elkarteak) eta sektore pribatuetatik (enpresa)
3.3 Parekidetasuna	Lanaren sexu banaketa gainditzea Zaintza lanak balioan jartzea Genero rol (maskulino/femeninoen) deserainkuntza
3.4 Zerbitzu sozialak	Zerbitzu sozial zein osasun zerbitzuetarako aukera herritar orori bermatzea. Autonomia maila ezberdinetara egokitutako zerbitzuak egotea



5.4. ZERBITZU SOZIALAK

Antzuolan 100 pertsona gazteko (20urte baino gutxiago), 122,5 adineko (60 urte baino gehiago) bizi dira, gainontzeko herrietan bezala, zahartze indizea altua da. Gaur egun 40-55 urte artean dituzten herritarrek pisu ikaragarria dute (biztanleriaren % 27a dira) eta urte gutxiren buruan zahartze indizearen igoera eragingo du horrek.

Beraz, esan daiteke, etorkizunean gizarte zerbitzuen beharrezana gero eta handiagoa izango dela. Antzuolak Bideberri Mankomunitatean parte hartzen du gizarte zerbitzuak eskaintzeko, eguneko zentroa eta pisu tutelatuak, besteak beste. Oinarrizko osasun zerbitzua ere eskaintzen da herrian.

Adinekoen egoerari so eginez, gero eta gehiago dira etxean bakarrik bizi direnak, 2018an, 65 urtetik gorako ehun pertsona etxean bakarrik bizi dira (%64 emakumeak). Adineko jendea batzen duen Landatxope elkarte dago herrian, eta erretiratuen mugimendua ere aktibo dago.

Etxebizitzari dagokionez, bereziki gazteek, baina etorkinek ere, etxebizitza lortzeko arazoak dituzte. Gainera herrian etxebizitza huts asko dago (%17,3 - 2011 urtean), eta ez dago alokairu sozialeko etxerik. Egoera horretan aintzat hartu beharreko beste faktore bat etxebizitza zaharren eraberritze eza da.

❖ HELBURUAK

Egungo eta etorkizuneko beharrak asetuko dituen gizarte zerbitzuak lortzeko pausuak eman nahi ditu Antzuolak, adineko pertsonen ongizatea, adinekoen bizitza aktiboa eta etxebizitzaren arazoari ere aurre eginez.

ARLOA	HELBURUAK
4.1 Adinekoen parte hartzea	Adinekoen parte hartzea eta belaunaldi arteko elkarlana lortu
4.2 Adinekoen beharrak	Adineko jendearen eta menpekotasuna duten horien bizi kalitatearen jarraipena egiteko bitartekoak ezarri Adinekoak etxeetan bizitzeko baldintzak ipini (jauzi handia dago etxez-etxe laguntzatik erresidentzietara). Auzoetako bizi kalitatea hobetzeko zerbitzu sozialetarako sarbidea* erraztea. Bakarrik bizi diren pertsonen komunikazio bideak eskaini Instituzioetatik harago, gertukoak edo bizilagunen inplikazioa landu. Norabide honetan lagungarriak izan daitezkeen teknologiak aprobetxatu. Zenbait etxe-kanpoan (langile batek) egiteko aukera aztertzea
4.3 Etxebizitza	Etxebizitza eskariaren eta eskaintzaren arteko oreka bultzatu, horretarako dauden etxebizitza hutsak betetzea lehenetsiz. Etxebizitza hutsak mobilizatzeko tresnak jarri (hutsak betetzea lehenetsi baino) Udala gaitasunak hartzen joatea. Etxebizitza zaharkituen berritzea, bereziki, irisgarritasuna eta efizientzia energetikoari dagokionez.

5.5. HERRI KUDEAKETA

2015. urteko azken datuei eutsiz, esan daiteke Antzuolako Udala azkeneko urteetan egoera ekonomikoa onbideratzen ari dela. 2009.urtean zor biziak goia jo zuen 1663,89€/biztanlekoa izatera iritsi arte; ordutik jaitsiz joan da, eta 2015koa aldiz 986€/biztanlekoa da.

Orokorrean herritarrek administrazioa gertukoa sentitzen dute, hala ere, komunikazioa hobetu eta eraginkortasuna handitzeko beharra dago. Azken hamarkadan egoera sozioekonomikoan izandako aldaketek HAPOa (Plan Orokorra) zaharkitua gelditzea ekarri dute, hortaz, gaurkotu eta industriaren espazio beharrak zein nekazaritza edo abeltzaintzarako lurren babestea beharrezkoa ikusten da.

Mugikortasunaren alorrean puntu ugari bereizi behar dira. Alde batetik, garraio publikoak ez du Antzuola zerbitzu-gune nagusiekin zuzenean lotzen (Arrasate, Oñati, Eibar...) non Ospitalea, unibertsitateak...etab dauden. Bestetik, garraio ez motorizatuari dagokionez hainbat hutsune identifikatu dira: bide gorri zein bide berde sarearen konexioak bukatzea, auzoekin oinezkoentzako komunikazio egokiak, irisgarritasuna hobetzea...

❖ HELBURUAK

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berritzeak herrigune eta landa eremuaren beharren arteko oreka mantentzen lagunduko du, eta mugikortasun jasangarriago baterako neurriak hartuko dira.

ARLOA	HELBURUAK
5.1 Administrazioa	Administrazioaren eraginkortasuna hobetzea, horretarako, funtzionamenduaren, komunikazioaren, baliabideen eta azpiegituraren egokitzapena eginez. Udal langileek eguneroko jardunean "irizpide estrategikoak" barneratuta izatea. Batzordeetan herritarren parte hartzea bultzatzea Udal azpiegituraren eta funtzionamenduaren egokitzapena langileen edo sailen arteko komunikazioa hobetzeko
5.2 Hirigintza	Plan orokorra berritzea. Etxebizitza zaharkituen berritzea, bereziki, irisgarritasuna eta efizientzia energetikoari dagokionez. (4.ildoko hausnarketa) Inguru industrialak: Oerlikon industriagune izendatu eta Jarduera industrial txikiaren mantenua. Nekazal lurak: Urbanizatu gabeko lurra eta nekazaritzarako baliagarria dena, nekazal ekoizpenerako babestea. Auzoetako bizi kalitatea hobetzeko zerbitzuetarako sarbidea* erraztea.
5.3 Mugikortasuna	Oinezkoentzako zein ibilgailu ez-motordunentzako izango den herrigune irisgarria lortzea. Inguruko herriekin bidegorri komunikazioa garatu. Garraio publikoaren hobetzea.

6. EKINTZA PLANA

Diagnostiko eta herritarren hausnarketatik abiatuta aipatutako bost ildo estrategikoak zehaztu dira, ildo horien garapenerako berriz, Antzuola 2018-2030 ekintza plana adostu da. Bertan, ildo bakoitza osatzen duten arloko ekintzak deskribatzen dira, herritarren aldetik lortutako babesa ikus daiteke eta ekintza aurrera eramango den aldia zehaztu da

LEHENTASUNA

Antzuola eitten prozesuaren 4.fasean herritarrek ekintza bakoitzari emandako lehentasuna ageri da zutabe honetan; horrela, herriarrentzat lehentasun handiko ekintzak, ertainekoak eta txikikoak bereziten dira.

❖ URTEA

	Udalbatzak akordioz hobetsi du hirurteko horretako ekintzen artean hauetatik hastea.
	Udalbatzak akordioz hobetsi du hirurteko horretako ekintzen artean hauek garatuko direla lehenengoen ostean.
	Udalbatzak akordioz hobetsi du hirurteko horretako ekintzen artean hauek azkenak garatuko direla

6.1. EKONOMIA ETA INGURUMENAREN JASANGARRITASUNA

ZK	ARLOA	EKINTZA	LEHENTASUNA			URTEA
			txikia	ertaina	handia	
1. ILDOA: EKONOMIA ETA INGURUMENAREN JASANGARRITASUNA	1.1.1	LANA	Ekintzaileentzat lokal bat eta proiektu bat martxan jartzea. Elkarlanean aritzea Garapen Agentzia, kooperatibak, udaletxe eta aholkularitza (Olatukoop).			2021-25
	1.1.2	LANA	Lan baldintza minimoak errespetatzeko konpromiso soziala lortu esparru ezberdinetan: enpresa, merkataria, etxeko langile...			2018-21
	1.2.1	NATUR BALIABIDEAK	Diagnostiko eta ekintza plan bat osatu herrian dauden baliabide naturalen ustiaketa aukeren ingurukoa: (aukerak) A-Biomasa proiektuaren garapena. B- Herri lurretako egurra eta egur soberakinak herritarrentzat eskuragarri jartzea. C- Zentral hidroelektriko txikia berreskuratzea. D- Antzuolako ur edangarriaren aprobetxamendua. E- Eraikinetan eguzki energiaren beretzeko sistema ezartzea.			2018-21
	1.2.2	NATUR BALIABIDEAK	Udalaren inbertsioetan produktu eta material naturalak erabiltzea lehenestea			2021-25
	1.2.3	NATUR BALIABIDEAK	Udalak epe luzeko kontraturik ez sinatzea enpresa pribatuarekin energiaren, uraren edo bestelako baliabideen hornidurarako.			2025-30
	1.3.1	LEHEN SEKTOREA / KONTSUMOA	Jangela auto-kudeatua eskolan: eskariaren azterketa, agente ezberdinen inplikazioa eta elkarlanerako aukerak lortu			2021-25
	1.3.2	LEHEN SEKTOREA / KONTSUMOA	Jangelak enpresetan: Sukaldea duten enpresetan bertako produktuen kontsumoa bultzatu.			2018-21
	1.3.3	LEHEN SEKTOREA / KONTSUMOA	Inguru naturalean ostatu edo kanpina jartzeko aukerak aztertu, abiapuntutzat hartuta: azpiegituren kalteordainarekin finantzatzeko aukera eta Uzarragako kokapena			2025-30
	1.3.4	LEHEN SEKTOREA / KONTSUMOA	Baserriaren transmisioa: Sentsibilizazio lana egin jabeekin, erabilerarik ez duten lur eta azpiegiturak erabili nahi dituztenen esku utz ditzaten.			2018-21
	1.3.5	LEHEN SEKTOREA / KONTSUMOA	Nekazaritza edo abeltzaintzan hasi nahi dutenentzako baliabideak eskaini.			2021-25
	1.4.1	INDUSTRIA	Herriko enpresen beharrak (lurrak...etab.) eta espektatibak ezagutzeko harreman bira bat egin.			2018-21
	1.4.2	INDUSTRIA	Mankomunitateak, enpleguarekin zer ikusia daukaten eragileekin batera, politika industrial, formazioa... dinamizatzea.			2021-25
	1.4.3	INDUSTRIA	Langileengan herriarekiko sentsibilitatea indartzeko ekintzak bultzatu enpresetan: euskara arloan, kirol txapelketak...			2021-25
	1.4.4	INDUSTRIA	Antzuolan lan egiten duten pertsonak guztiak bertako zerbitzu eta produktuen bezero potentzial bezala kontuan hartu proiektuetarako.			2025-30
	1.5.1	INGURUMENA	Landa inguruari eragiten dioten gatazketan (bideak, motorrak, lurren erabilera...) herritar guztien parte hartzea bultzatzea.			2025-30
1.5.2	INGURUMENA	Hondakinen kudeaketa: A-"Hobeki" proiektuan parte hartu eta kudeaketa egokian sakondu. B-erabilera bakarreko "enbaseak" gutxitzeko kanpainak egin eta araudiak garatu. C-Talde bat sortu Zero Zabor filosofian sakontzeko			2018-21	
1.5.3	INGURUMENA	Mendi bideak: A- garbitu, txukundu, seinaleztatu eta berreskuratu. B- inguru naturala ezagutzeko (zuhaitz, animalia eta baserrien informazio panelak). B- Antzinako ofizioak erakutsiz ibilbide bat diseinatu			2018-21	

6.2. PERTSONAREN GARAPENA

	ZK	ARLOA	EKINTZA	LEHENTASUNA			URTEA
				txikia	ertaina	handia	
2.IILDOA: PERTSONAREN GARAPENA	2.1.1	EUSKARA	Udaleko Euskara batzordea eragile ezberdinen elkargune bihurtu	X			2018-21
	2.1.2	EUSKARA	Enpresetako euskara planak eta herriko dinamikak uztartu, elkarlana bultzatzeko	X			2021-25
	2.1.3	EUSKARA	Euskaraldia eta mintzalaguna bezalako ekimenak bultzatu	X			2018-21
	2.1.4	EUSKARA	Haurrentzako euskarazko kultur ekitaldiak antolatu		X		2025-30
	2.1.5	EUSKARA	Gurasoentzako ekintzak sortu euskararen erabilera hobetzeko			X	2018-21
	2.2.1	HEZKUNTZA	Eskolako eredu pedagogikoa mantendu eta hobetzeko hezkuntza eragileekin proiektu zehatza landu.			X	2018-21
	2.2.2	HEZKUNTZA	Euskal kurrikuluma bultzatu	X			2021-25
	2.2.3	HEZKUNTZA	Baso-haurtzaindegi ereduaz aztertu	X			2025-30
	2.2.4	HEZKUNTZA	Ingurumen Hezkuntza: A- Baserri eta Eskolaren arteko elkarlana garatu, baserrietara bisitak eta mintegiak egiteko. B-Eskolan baratza jartzeko aukeren azterketa egin			X	2018-21
	2.3.1	NERABE ETA GAZTEAK	Haurtzarorako zuzenduak dauden ekintzak (musika, dantza, eskola kirola...) egokitu nerabezarorako erakargarriak izan daitezzen.			X	2021-25
	2.3.2	NERABE ETA GAZTEAK	Nerabe eta gazteen taldeak sortzea bultzatu		X		2025-30
	2.3.3	NERABE ETA GAZTEAK	Guraso eta herritarren inplikazioa lortu gazteen jarrera desegokiak bideratzeko			X	2021-25
	2.3.4	NERABE ETA GAZTEAK	Gaztetxearen erabilera gazteek aurkeztutako proiektu auto-kudeatu baten arabera baldintzatuta egotea.			X	2018-21
	2.4.1	KIROLA	Kirolerako aukerak dibertsifikatzeko neurriak hartu eta genero ikuspegian arreta berezia ezarri			X	2021-25
	2.4.2	KIROLA	Futbol zelaiaren konponketa	X			2018-21
	2.4.3	KIROLA	Kirol taldeak elkartzeko gune bakarra sortzea (kirol kontseilua/elkarte bakarra...)		X		2021-25
	2.4.4	KIROLA	Mankomunitateko kirol-txartela lortu			X	2018-21
	2.4.5	KIROLA	Kirola osasungarria den heinean sustatu eta bizikletaren erabilerarako kanpaina egin.		X		2025-30
	2.5.1	ELKARTEAK	Elkarteen eta antolatzen diren ekintzen arteko koordinazioa		X		2025-30
	2.5.2	ELKARTEAK	Herriko elkarteek (gastronomikoak ere) herriari egin diezaioketen ekarpena antolatzeko plangintza diseinatu		X		2021-25
	2.5.3	ELKARTEAK	Elkarteetan belaunaldien arteko transmisioa emateko aurreikuspenak egin.	X			2025-30
	2.6.1	KULTURA	Kulturaren gaineko herri mailako hausnarketa orokorra egitea			X	2018-21
	2.6.2	KULTURA	Eskualdeko kultur eskaintza fluxuak aprobetxatuz ekintza koordinatua antolatu	X			2018-21
	2.6.3	KULTURA	Ipar-Hegoa arteko harremanak sustatu		X		2018-21
	2.6.4	KULTURA	Herri ikuspegiari arreta jarritz, musika beharrak identifikatu eta asetzeko planteamendua garatu: korua, txistulariak, txarangak, musika taldeak...		X		2021-25

6.3. BIZIKIDETZA

	ZK	ARLOA	EKINTZA	LEHENTASUNA			URTEA
				txikia	ertaina	handia	
3.ILDOA: BIZIKIDETZA	3.1.1	ANIZTASUNA	Guraso etorkinak ipuin kontalari proiektua: euskarara hurbiltzeko	X			2018-21
	3.1.2	ANIZTASUNA	Etorri berriekin harremana egiteko harrera protokoloa martxan jarri, administrazio eta herritarren arteko elkarlanean.			X	2018-21
	3.1.3	ANIZTASUNA	Etorri berrien seme-alabak dinamika ezberdinetik kanpo gera ez daitezen neurriak hartu (udaleku, irteera, kirola...)			X	2018-21
	3.1.4	ANIZTASUNA	Hizkuntza ezberdinen ezagutzaren mapa osatu	X			2025-30
	3.2.1	EZBERDINTASUN SOZIALA	Herritarrek jasotzen duten errentaren gaineko azterketa egin	X			2018-21
	3.2.2	EZBERDINTASUN SOZIALA	Herri osoaren konpromisoa lortu soldata minimo bat izateko herrian (1200€)		X		2021-25
	3.2.3	EZBERDINTASUN SOZIALA	ETTrik gabeko herria izateko konpromisoak lortu		X		2021-25
	3.2.4	EZBERDINTASUN SOZIALA	Hainbat produktu (elikagaiak, artisautzakoak...) lortzeko beharrezkoa den lan-kantitatearen eta salneurrien arteko kontzientziario kanpaina egin.	X			2018-21
	3.2.5	EZBERDINTASUN SOZIALA	Enpresa, elkarte eta erakundeek osaturiko foroa sortzea: enplegua sortu, muturreko egoerei erantzun, minimoak adostu...			X	2018-21
	3.2.6	EZBERDINTASUN SOZIALA	Soldata baxuenak dituzten lanpostuen azterketa egin.		X		2018-21
	3.3.1	PAREKIDETASUNA	Industria sektorean emakumeen kontratazioarako neurriak bultzatu		X		
	3.3.2	PAREKIDETASUNA	Genero rolek nola eragiten gaituzten sentsibilizazioarako tailerrak, hitzaldiak... antolatu			X	2018-21
	3.3.3	PAREKIDETASUNA	Administratibotik parekidetasunaren alde sortzen diren ekimenak babestu	X			2018-21
	3.3.4	PAREKIDETASUNA	Estereotipoak apurtzen lagundu dezaketen emakume/gizon erreferenteen hitzaldi, ekitaldi... bultzatu			X	2021-25

6.4. ZERBITZU SOZIALAK

	ZK	ARLOA	EKINTZA	LEHENTASUNA			URTEA
				txikia	ertaina	handia	
4.ILDOA: ZERBITZU SOZIALAK	4.1.1.	ZERBITZU SOZIALAK	Zahar egoitzen jarraipena egin bertako egoera (baldintzak) zein den ezagutzeko	X			2021-25
	4.1.2	ZERBITZU SOZIALAK	Osasun zerbitzuaren azterketa egin Antzuolak dituen beharretara egokitzeko.			X	2018-21
	4.1.3	ZERBITZU SOZIALAK	Pisu tutelatuaren erabilera zabaldu beste behar batzuei erantzuteko		X		2021-25
	4.1.4	ZERBITZU SOZIALAK	Gizarte zerbitzuen sozializazioa egin	X			2025-30
	4.2.1	ADINEKOEN PARTE HARTZEA	Adinekoen kontseilua sortzea (elkarte, herritar eta administrazioa)	X			2025-30
	4.2.2	ADINEKOEN PARTE HARTZEA	Belaunaldi ezberdineko pertsonen arteko ekintzak antolatu (Idolaz eta Landatxope)		X		2018-21
	4.2.3	ADINEKOEN PARTE HARTZEA	Menpekotasun maila ezberdina duten eta ez dutenen arteko proiektu komunak bultzatu		X		2021-25
	4.3.1	ADINEKOEN BEHARRAK	Antzuolako 65 urtetik gorako pertsonen bizi baldintzen azterketa egin		X		2021-25
	4.3.2	ADINEKOEN BEHARRAK	Etkez-etxekeko zerbitzu sozialen egokitzapena egin (teknologia berriak aprobetxatuz) etorkizuneko beharretara moldatzeko.	X			2025-30
	4.3.3	ADINEKOEN BEHARRAK	Neurriak hartzea gizarte larrialdietarako laguntzak beharra duten guztiengana iristeko.			X	2018-21
	4.4.1	ETXEBIZITZA	Herrian dauden etxe zahar eta hutsen inguruko diagnostikoa egin			X	2021-25
	4.4.2	ETXEBIZITZA	Alokabide programa ezagutzera emateko kanpaina eta jardunaldiak	X			2018-21
	4.4.3	ETXEBIZITZA	Udalak etxebizitzak eskuratu (formula ezberdinetan) eta herritarren zerbitzura jartzeko aukerak aztertu.			X	2025-30

6.5. HERRI KUDEAKETA

	ZK	ARLOA	EKINTZA	LEHENTASUNA			URTEA
				txikia	ertaina	handia	
5.ILDOA: HERRI KUDEAKETA	5.1.1	ADMINISTRAZIOA	Udaletxeko berregituraketa egin espazio kolektibo eta irekiak ahalbidetzeko.	X			2021-25
	5.1.2	ADMINISTRAZIOA	Langileek beraien lanaren jarraipena egiteko tresnak garatu.	X			2025-30
	5.1.3	ADMINISTRAZIOA	Udaleko Arreta zerbitzurako aparteko gela bat egin		X		2021-25
	5.1.4	ADMINISTRAZIOA	Udal batzordeen formatua dinamikoagoa egin parte hartzaileagoak izateko.	X			2018-21
	5.1.5	ADMINISTRAZIOA	Udalak herriaren aurrean kontuak eman eta eztabaidatzeko kontseilu irekia egin.			X	2018-21
	5.2.1	EKIPAMENDUAK	Musika jo edo entseiatzeko lokalak egokitu.		X		2021-25
	5.2.2	EKIPAMENDUAK	Gimnasioa martxan jarri			X	2018-21
	5.2.3	EKIPAMENDUAK	Ikasleentzako ikasteko gunea sortu		X		2018-21
	5.2.4	EKIPAMENDUAK	Emakumeen jabekuntza/ahalduntzea lantzeko espazio bat sortzea (emakumeen etxea...)			X	2018-21
	5.2.5	EKIPAMENDUAK	Frontoian eskalatzeko rokodromoa egitea			X	2021-25
	5.3.1	HIRIGINTZA	Orain arteko Arau Subsidiarioek zuten helburu eta lortu denaren arteko balantzea egin		X		2018-21
	5.3.2	HIRIGINTZA	Oerlikon ingurua eremu urbanizagarri izateari utzi		X		2018-21
	5.3.3	HIRIGINTZA	Urbanizatu gabeko lurra eta nekazaritzarako baliagarria dena, nekazal ekoizpenerako babestea.			X	2018-21
	5.3.4	HIRIGINTZA	Baserri inguruko bigarren mailako eraikinak, egurrezkoak edo eta desmuntagarriak izatea.	X			2021-25
	5.3.5	HIRIGINTZA	Beheko Auzoa, Antigua eta Errekalde "Aktuazio Gune Berezi" izendatu		X		2018-21
	5.3.6	HIRIGINTZA	Obretako segurtasun baldintzak betearazteko protokoloak ezarri	X			2018-21
	5.3.7	HIRIGINTZA	Onartzen diren proiektuei jarraipena egiteko protokoloak ezarri	X			2018-21
	5.3.8	HIRIGINTZA	Udalak lurak erosten jarraitzea	X			2018-21
	5.3.9	HIRIGINTZA	Landa inguruneko etxebizitza politika zorroztea, presio inmobiliaria txikitu eta lurak ekoizpenerako aukera gehiago izan ditzaten.	X			2025-30
	5.3.10	HIRIGINTZA	Ibarrondo atzeko erreka bainatzeko egokitzea aztertu.			X	2018-21
	5.4.1	MUGIKORTASUNA	Bide berdearen (Trenbidea) jarraipena egitea Urolarekin.			X	2025-30
5.4.2	MUGIKORTASUNA	Galartza bidea bidegorria eta trenbidea lotzea			X	2021-25	
5.4.3	MUGIKORTASUNA	Bidegorri, bide berde (trenbide) eta oinezkoen ibilbideak seinaleztatzea		X		2018-21	
5.4.4	MUGIKORTASUNA	Herriaren peatonalizazioa egiten jarraitu	X			2021-25	
5.4.5	MUGIKORTASUNA	Basalde auzora oinezkoentzako bidea egin			X	2021-25	
5.4.6	MUGIKORTASUNA	Lan edo ikasketetarako mugikortasun eskariari erantzuteko, garraio publiko sistema osagarrituko duen zerbitzua (komunitarioa, trukekoa...) aztertu eta antolatu.		X		2018-21	
5.4.7	MUGIKORTASUNA	Bergara aldera dagoen errepideko sarrera eta irteeran biribilgune bat egitea		X		2018-21	

7. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Plan Estrategikoan zehaztutako helburuak lortzen direla ziurtatzeko eta ekintza planaren gauzatzea kontrolatzeko beharrezkoa da guztiaren ebaluazio iraunkor eta partekatua egitea.

Ezinbestekoa da bi plano ezberdin bereiztea. Alde batetik, planean jasota dagoena zein mailatan betetzen ari den baloratu behar da. Eta, bestetik, ekintzen arrazoi edo beharretan gehiago pentsatuz, horien gaurkotasuna eta beharrezkoa eztabaidagai jarri eta beharrezkoa denean Planean egokitzapenak egin behar dira. Halaber, ariketa hau, herritarrekin eta ekintza planaren exekuzioan parte hartzen duten agente nagusiekin partekatuta izan behar da.

7.1. EBALUAZIO JARRAITUA

Ebaluazio jarraituaren helburua Planaren garapen maila neurtzea da. Planean jasotakoaren eta egindakoaren arteko aldea zergatik ematen den baloratuz, hurrengo urterako aurreikuspen eta neurri zuzentzaileak proposatzea izango da ebaluazio jarraituaren arduradunen egitekoa.

Maiztasuna, handiagoa izan badaituke ere momentuaren arabera, urtean behin egingo da eta herritarren eta eragileen parte hartzea izango du.

Honakoak dira ekintza bakoitzaren garapen maila neurtzeko kontuan hartuko diren adierazleak:

- Exekuzioaren arduraduna identifikatuta dago
- Ekintzaren onarpen maila
- Ekintzaren zehaztasun maila
- Arduradunen agendak aurreikuten du
- Aurreikuspen ekonomikoa egin da
- Gauzatze maila

